

Probintzia Auzitegiak

Probintzia Auzitegiak probintzia bat barne hartzen duten justizia auzitegiak dira eta dagokien probintziako hiriburuan izaten dute egoitza. Ordena jurisdikzional zibilean eta zigor-arlokoan eskumena duten organo elkargokideak dira.

Probintzia Auzitegiak probintziako pertsona bakarreko organoek hartutako erabakien kontra formulatzen diren apelazio errekursoez arduratzen dira. Zigor-arloan, larritasun handiagoko zigorrak dituzten delituen prozedurez arduratzen dira (Zigor-arloko Epaitegien eskumenetik kanpo geratzen diren horiez). Probintzia Auzitegiko magistratu batek, banaketa ordenari jarraituz aukeratzen denak, betetzen du zinpeko epaimahaiko presidente kargua. Auzitegia arbitraje-laudoak deuseztatzeko errekursoez arduratzen da instantzia bakarrean.

A Coruñako Probintzia Auzitegiak sei sail ditu eta horietatik bostek A Coruñan dute egoitza (azken hauetako bik arlo Zibilean dute eskumena eta beste hiruek Zigor-arloan). Seigarren saila Santiago Compostelakoan kokatzen da eta arlo zibileko zein zigor-arloko eskumenak ditu. A Coruñako egoitza Capitán Juan Varela z.g. kalean dago eta Santiago Compostelako egoitza, aldiz, Viena z.g. kalean.

Lugoko Probintzia Auzitegiak sail bi ditu: bata arlo Zibilean du eskumena eta besteak Zigor-arloan. Avilés z.g. kalean du egoitza.

Ourenseko Probintzia Auzitegiak sail bi ditu: bata arlo Zibilean du eskumena eta besteak Zigor-arloan. Concepción Arenal plazako 1. zenbakian du egoitza.

Pontevedrako Probintzia Auzitegiak sei sail ditu. Horietako lauk Pontevedran dute egoitza: arlo Zibilean dute eskumena lau sailek, eta Zigor-arloan beste biek. Bosgarren sailak (zigor-arloko eskumena duenak) eta seigarren sailak (arlo zibileko eskumena duenak) Vigon dute euren egoitza. Pontevedrako egoitza Salvador Moreno kaleko 5. zenbakian dago eta Vigoko egoitza, aldiz, Lalín kaleko 4. zenbakian.